

II. DEIALDIA (2020)

FILOSOFIA, ZIENTZIA ETA BALIOAK MASTERRA EGITEKO DIRU LAGUNTZAK

JOXE AZURMENDI KATEDRAk 2020-2021an *Filosofia, Zientzia eta Balioak Masterra* egiteko lau diru laguntza emango ditu. Bigarren edizio honetako diru laguntza bakoitza 5.000 eurokoa izango da.

2019ko Uztailaren 7an Euskal Herriko Unibertsitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak “Pentsamendu Garaikiderako Joxe Azurmendi katedra proiektua” (JAK) sortzeko, garatzeko eta mantentzeko hitzarmena sinatu zuten.

Honen helburu nagusia Joxe Azurmendiren eta baita 1956ko Belaunaldiko kideen obra eta pentsamendua ikertu, ustiatu eta transmititzea ahalbidetuko duten ekintzak sustatzea da, bai eta euskal pentsamendua eta euskal gizarteak behar duen masa kritikoa garatzen joateko adierazpen hauen azterketa, gogoeta eta kritika egitea ahalbidetuko duten ekintzak sustatzea ere.

JAK-k bultzatu nahi dituen **ikerketa lerroak** hauek dira: 1. 1956ko Belaunaldiaren pentsamendua; 2. Nazioarteko eragina euskal pentsa-menduan; 3. Euskal pentsamenduaren transmisioa; 4. Hizkuntzaren eta kulturaren teoriak; 5. Naziogintza eta estatugintza; 6. Bizikidetzeta eta gogoeta etikoa; 7. Pentsamendu soziala eta kooperatibismoa; 8. Gizaberea eta gizakiaren ikuspegi berriak.

JAK-ren jardueretako bat honakoa da: “Filosofia, Zientzia eta Balioak” (FZB) masterrean Master Amaierako Lana (MAL) euskaraz eta aipatutako ikerketa lerroetako baten inguruan egiteko diru laguntzak eskaintzea”. Honenbestez, eta 2020ko bigarren edizioari begira, honako hauek dira xehetasunak:

1. artikulua:

Deialdi honetan FZB masterra egiteko lau diru laguntza emango dira, horietako bakoitza 5.000 eurokoa izango delarik (eman gabe gera daitezke).

2. artikulua:

Eskariak, eta dagokion dokumentazioa, e-postaz aurkeztuko dira jak.laguntzak@gmail.com helbidean **2020ko uztailaren 24a** baino lehen (ikus 7. artikulua: “nola eta zer bidali”).

3. artikulua:

Hauek dira, eskariarekin batera, aurkeztu beharko direnak: a/ FZB masterraren aurrematrikularen agiria; b/ Euskararen ezagutzaren C1 agiria edo parekoa; c/ MALaren Proiektuaren Memoria (ikus 6. artikulua: “memoriaren xehetasunak”).

4. artikulua:

Diru laguntzak nori eman JAKren Batzorde Eragileak eta FZB masterreko Batzorde Akademikoak adostutako hiru kideko epaimahaiak erabakiko du **2020ko uztailaren 30ean**.

5. artikulua:

Burutuko den MAL euskaraz idatziko da eta, edukiz, JAK-ren ikerketa lerroen ingurukoa izango da (ikus gorago). Diru laguntza jasotzen duenak konpromisoa hartzen du aurkeztutako lana, bere hartan edo bertsio laburtuan, argitara emateko modu batean edo bestean.

6. artikulua:

MEMORIAREN XEHETASUNAK:

1. Proiektuaren izenburua
2. Kokatu proiektua JAK-ren ikerketa lerroen artean
3. Hitz klabeak (gehienez 5)
4. Laburpen motza (50-100 hitz)
5. Laburpen luzea (1000 hitz gehienez)
 - a/ Justifikazioa eta gaiaren garrantzia (± 100 hitz)
 - b/ Marko teorikoa eta aurrekariak (± 300 hitz)
 - c/ Ikerketaren hipotesia edo helburua (± 300 hitz)
 - d/ Metodologia (lan enpirikoa bada, datuak nola jasoko diren; lan teorikoa bada, nola garatuko den argudioa) (± 150 hitz)
 - e/ Aurreikusitako emaitzak eta ondorioak (± 150 hitz)
 - f/ Bibliografia (25 iturri gehienez)

7. Artikulua:

NOLA ETA ZER BIDALI: Hauek dira jak.laguntzak@gmail.com helbidera, **2020ko uztailaren 24a** baino lehen, bidali beharreko dokumentuak (pdf-n):

1. Proiektuaren izenburua eta memoria. Dokumentu honetan ez da identifikaziorik agertuko.
2. Identifikazio dokumentua: Proiektuaren izenburua. Izena eta abizena. Helbidea (postazkoa zein elektronikoa) eta telefono zenbakia.
3. EHUko Filosofia, Zientzia eta Balioak masterraren aurrematrikularen agiria.
4. Euskararen ezagutzaren C1 agiria edo parekoa.

Informazio gehiago: i.zabaleta-gorrotxategi@ehu.eus